

JazzEñe 2026

MUSIKA DEIALDIA

fundación  sgae fundazioa

SGAE Fundazioak JazzEñe abiatu du hamabigarren aldiz. Ekimenak helburu du SGAEko kide diren egileen jazz nazioartekotzea, **eta 2026ko uztailaren 22tik 25era egingo da Donostian, bertoko Jazzaldiaren barnean.**

Hori dela eta, **SGAE Fundazioak** deialdi publikoa egiten die honako hauei:

- SGAEko kide diren musika-sektoreko egileei.
- Jazz-taldeei, nahiz eta SGAEko kide den egilerik ez izan, baldin eta SGAEen erregistratutako erreperorioa baliatzen badute. Gehienez bost (5) kide dituzten taldeak bakarrik onartuko dira.

Hauek dira programaren helburuak: jazz zuzenean sustatzea; jazz-talde gehiagok jaialdietan parte har dezaten lortzea; SGAEko kideentzat nazioarteko birak sustatzea; eta sektoreko profesionalak biltzea (egileak, artistak, managerrak, programatzaileak, jaialdi-zuzendariak, diskoetxeak, etab.), gure herrialdekoak nahiz atzerrikoak elkar harremandu daitezen eta euren esperientziak truka ditzaten.

Lau egun hauetan egile eta jazz-talde parte-hartzaileek kontzertuak eskainiko dituzte *showcase* formatuan. Entzuleen artean jazzarekiko interesa duten nazioarteko hainbat jaialdi-zuzendari eta programatzaile egongo dira. Horrez gain, **SGAE Fundazioak** gonbidaturiko nazioarteko jazz-jaialdietako zuzendari eta programatzaileak bildu egingo dira egileen eta taldeen managerrekin. Aurten, Donostiako Udala, Donostia Kultura eta Donostiako Jazzaldia izango dira erakunde laguntzaileak.

OINARRIAK

1. Eskatzaileak eta baldintzak

SGAE Fundazioak aurrez aipatutako baldintzak betetzen dituen interesdun orori egiten dio deialdia.

Eskaera honako hauek aurkez dezakete:

- SGAEko kide diren egileek, beren izenean eta eskubidez edo ordezkatzan dituen erakundearen bidez. Erakunde horiek (management-agentziak, musika editoreak, diskoetxeak etab.) behar bezala onetsiak egon beharko dute eta eskaera egilearen eta/edo jazz-taldearen izenean eta ordezkartzan aurkeztuko dute.
- Jazz-taldeak berak, taldearen izenean ariko den kideetako baten bitartez Jabetza Intelektualaren legearen 111. artikuluan datorren bezala. Halaber, aurkeztu daitezke ordezkatzan dituzten erakundearen bidez, hala nola management-agentziak, diskoetxeak eta abar. Erakundeek behar bezala onetsiak egon beharko dute eta eskaera jazz-taldearen izenean aurkeztu beharko dute.

2. Eskaera eta dokumentazioa

Eskaerak gaztelaniaz aurkeztu beharko dira, SGAE Fundazioaren **www.fundacionsgae.org** webgunean, egokitutako online sistemaren bitartez, honako dokumentazio honekin batera:

- Eskaera-orria, behar bezala beteta.
- Eskatzailearen IFZ/AIZ/IFK/pasaportearen kopia, betiere indarrean dela.
- Enpresa eskatzailearen legezko ordezkari itza egiaztatzen duten eskriturak edo dokumentazioa, izena ematen duen egilearen edo jazz-taldearen ordezkari kolektiboaren izenean.
- Egilearen CVa edo jazz-taldearen ibilbidea. Bertan aipatuko dira aurreko lanak entzungai eta/edo ikusgai dituzten online plataformak. Proposatutako musika-taldeak bat etorri behar du JazzEñen aurkeztekoa den proiektuarekin. Proposamenen zehaztu beharko dira bai parte-hartzaile guztiak, bai interpretatzekoak diren errepertorioak, bai eta partaidetzaren bidez nazioartekotu nahi den lan zehatza ere. Proposamenak onargarriak izango badira, gehienez bost taldekide izan behar dituzte.
- Taldearen musika-lagina duen soinu-artxiboa (MP3 formatuan).
- Parte hartzen duten egile eta musika-taldeko kide guztiek sinatutako baimena, SGAE Fundazioak datu pertsonalak erabiltzeko baimena izan dezan deialdian parte hartzeko beharrezko diren kudeaketa guztiak egiterakoan. Baimen hau nahitaezkoa da.
- Bestelako dokumentazio gehigarri garrantzitsua (hautazkoa).

Eskaerak egiteko epea 2026ko otsailaren 3an hasiko da eta 2026ko martxoaren 3ra arte egongo da zabalik.

3. Hautapen-prozesua

SGAE Fundazioak Ebaluazio Batzorde bat izendatuko du eta honako hauek osatuko dute batzordea: jazzean espezializatutako musika sektoreko profesionalak, eta programazioaren arloan dabilen profesionalak bai eta kudeaketa kulturalerako erakunde-ordezkariek nahiz profesionalak ere. Batzordeak JazzEñen parte hartuko duten egileak eta/edo taldeak ebaluatu eta aukeratu ditu.

Hautetsien eta ordezkoen zerrenda bana egingo da (ordezkoena ez da argitaratuko), lehenengoek uko egingez gero aukeraketa bermatzeko.

Eskaerak baloratu eta puntu gehien dituzten egile eta/edo taldeak eta ordezeko egileak eta taldeak hautatu ondoren, antolatzailea harremanetan jarriko da aurrez hautatutako egile eta/edo taldeekin, JazzEñe egingo den leku eta datetan parte hartzeko aukera dutela egiaztatu, baieztatu eta ziurtatzeko.

Hautatuen artean parte hartzerik ez duen inor balego, ordezeko gisa hautatutako egile eta/edo taldeekin harremanetan jarriko da Ebaluazio Batzordea.

Batzordearen ebazpena apela ezina izango da eta 2026ko apirilean argitaratuko da.

Antolatzaileak behin betiko hautetsien ebazpena argitaratzen duen data eta JazzEñe egingo den dataren artean, hautatuak izan diren egileek eta/edo taldeek zerrenda bat aurkeztu beharko dute, jazz-taldea osatzen duten kide bakoitzaren datuekin, euren ekitaldia kontratatu ahal izateko.

4. Ebaluazio irizpideak

Hautagaien gaitasun artistikoak ebaluatzeko, Batzordeak kontuan hartuko ditu CVak eta jazz-taldearen ibilbidea, eta gainerako dokumentazioa. Originaltasuna, sormena eta proiektuaren bideragarritasuna baloratuko ditu.

5. SGAE Fundazioaren betebeharrak

SGAE Fundazioak zuzenean edo kolaboratzaileen bitartez honako hauek hartuko ditu bere gain:

- Hautatutako egile bakoitzaren eta hautatuak izan diren jazz-taldeak osatzen dituzten kide guztien bidaia, bai eta ostatua kudeatzea eta ordaintzea.
- Kontzertuen kudeaketa eta ekoizpen-gastuak.
- SGAE Fundazioak 200 € gordin ordainduko dizkio SGAEko kide diren hautatutako egile bakoitzari eta hautatutako jazz-taldeetako kide bakoitzari.

6. Arau orokorrak

- Parte-hartzaileek SGAE Fundazioa salbuesten dute plagioak edo jabetza intelektualari buruz indarrean den legedia urratzeak dakarren erantzukizunetik, aurkeztutako lanen batek arau-hausteren bat egiten baldin badu.
- Deialdi honetara aurkeztu diren heinean, egileek osoki onartzen dituzte oinarri hauek.
- Deialdi honen ondorioz, SGAE Fundazioak ez du hartzen proiektu honen gauzaperari eta garaperari lotutako erantzukizunik, ez zuzenik ez bigarren mailakorik, baldin eta agiri honetan zehaztu ez bada.
- Erreklamaziorik edo gatazkarik izanez gero, Madrilgo, Espainiako hiriburuko, auzitegien jurisdikziopean egongo dira bai parte-hartzaileak, bai proiektuaren antolatzaileak.

7. Konfidentzialtasun-betebeharra eta datu pertsonalen babesa

Konfidentziala izango da deialdia kudeatzeko eskatzaileek emango duten informazio guztia.

Eskatzaileek euren borondatez emandako datuak SGAE Fundazioaren ardurapean dagoen fitxategi batean sartuko dira, eta soilik erabiliko dira deialdi honetan eskatzailearen parte-hartzea kudeatzeko. Datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubidearen jabeak datuok ikusteko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko eta horien aurka egiteko eskubideak ditu, baita datuen eramangarritasun eskubidea eta erabaki indibidual automatizatuen objektu ez izateko eskubidea ere. Eskubideak gauzatzeko, hona idatz dezakezu: SGAE Fundazioa, Zerbitzu Juridikoentzat, Bárbara de Braganza, 7, 28004, Madril. Idazkian izena eta abizenak adierazi beharko dituzu, gauzatu nahi duzun eskubidea zein den adierazi eta eskubide hori gauzatzeko arrazoia azaldu. SGAE Fundazioak interesdunak emandako datuak egiazkotzat eta gaur egungotzat hartzen ditu. Aldaketarik izanez gero, interesdunak berehala jakinarazi behar du.

Informazio gehiagorako:

informacion@fundacionsgae.org

Antolatzailea:

fundación **sgae fundazioa**

Laguntzaileak: